



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2019KO MARTXOAREN 29AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), udaletxeko bilkura aretoan, 2019ko martxoaren 29an arratsaldeko 17:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Aitor Arangoa, Xabier Azpiroz eta Bakartxo Ripalda.

BERTARATU EZ DIRENAK: M^a Mar Ansorena Sala.

Bertaratu da baita ere Asensio Indacoechea Arangoa.

17:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko batzarreko akta onartzea.

2019ko otsaileko ohiko batzarreko akta deialdiarekin batera bidali da eta bildutakoek aho batez onartzen dute.

2.- Alkate ebazpenak.

Alkateak irakurtzen ditu orain arte emandako alkate ebazpenak:

-2019/21 alkate ebazpena otsailaren 27koa Ascensio Aranori zuzendua Igoako 9 poligonoko 282 lursailean dagoen eraikinaren teilatua berritzeko egindako aitortpen arduratsuaren tasen likidazioa onartuz.

- 2019/22 alkate ebazpena otsailaren 27koa Arraratsko kontzejuari zuzendua Arraratsko 14. Poligonoko 1. Lursailean dagoen eraikinaren beheko eta lehenengo solairuak egokitzeko aurkeztutako aitortpen arduratsuaren tasen likidazioa onartuz.

- 2019/23 alkate ebazpena otsailaren 27koa Ernaizu E Koop-i zuzendua Baimena emanaz Apeztegi berriko ganbarako gelan armailu bat jarri eta gela libre dagoenean erabili ahal izateko eta Otsailaren 5eko atsaldean denda ixteko.

- 2019/24. Alkate ebazpena martxoaren 1ekoa Noelia Palacini zuzendua onartuz jardunaldia haunditzeko eskaera Basaburuko 0.-3 haur eskolan dagoen Urko Martin Palacin semearentzat, jardunaldi erditik jardunaldi osora pasatuz, Martxoaren 1etik, 2018-2019 ikasturte bukaera arte.

- 2019/25 alkate ebazpena martxoaren 1ekoa Muro Papel enpresari zuzendua onartuz aurkeztutako aurrekontua Basaburuko 0-3 haur eskolan 10 takilla jartzeko jartzeko, 792,18 BEZ barne euroko aurrekontuarekin.

- 2019/26 alkate ebazpena Flavio Bravori zuzendua martxoaren 1ekoa onartuz behin behineko, gainbalioaren zergari lotuta ez egotea, Aizarotzko Herriko Plaza 1 behea B etxebizitzaren salmenta, Flavio Bravok egindakoa, Nafarroako Toki Ogasunen 1995/2 Foru Legea aldatzen duen 2017/19 Foru Legearen 172. Artikuluaren arabera eta ikusita ez dela egon ondasunaren gainbalioa.

- 2019/27 alkate ebazpena martxoaren 1ekoa Martxoaren 8ko greba deialdiaren ezagutza jaso eta greba jardunaldirako Ttikiena haur eskolan zerbitzu minimoak ez finkatzeko onespena, ez daudelako larrialdi bereziko zirkunstantziak ez luzaezin beharrak.

- 2019/28 alkate ebazpena martxoaren 6koa Blanca Iriarteri zuzendua onartuz egindako jardunaldia luzatzeko eskaera Basaburuko 0-3 haur eskolan dagoen Unai Arano Iriarte semearentzat, jardunaldi erditik jardunaldi osora pasatuz, Martxoaren 15etik, 2018-2019 ikasturte bukaera arte.

-2019/29 alkate ebazpena martxoaren 11ekoa Yolanda Arribasi zuzendua iharduera baimena emanaz ekainaren 23ko 2003/148 Foru Dekretuaren 5.6 artikulua arabera, Arrarasko 14 poligonoko 326 lursailan 2 asto edukitzeko.

- 2019/30 alkate ebazpena martxoaren 12koa Mikaela Elizalderi zuzendua Onartuz 2019 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea 9803DGT matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik.

- 2019/31 alkate ebazpena martxoaren 13koa Edurne Koch-i zuzendua Onartuz 2019 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea NA4855AT matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik.

- 2019/32 alkate ebazpena Martxoaren 14koa Sisnet Teknologia Berriak enpresari zuzendua onartuz egindako eskaera, Beruete, Aizarotz eta Udabe Beramendiko deposituetan dauden errepidoreak erabiltzeko, Aizarotz, Gartzaron eta Itsasoko fibra sarea martxan jartzeko, sinatutako hitzarmenean zehazten diren baldintzen arabera.

- 2019/33 alkate ebazpena Martxoaren 21ekoa Altsasukoa gertakarien inguruan izandako epaiari buruzko adierazpena onartuz.

Bildutakoak ontzat ematen dituzte egindako ebazpenak.

3.- Biztanleriaren kopuruaren onspena 2019/01/01eko datarekin.

Alkateak azaltzen du finkatu direla urtarilaren 1eko datarekin biztanleria kopurua, udal zerbitzuen arabera Basaburuko Udaleko biztanleria aipatutako datarekin 836 pertsona dira. Aldiz INE-k udalari egiten dion biztanleria proposamena 832 pertsonena.

Bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute aho batez:

- **Onartzea Basaburuko udalerriko biztanleriaren kopurua 2019/01/01 datarekin, 836 biztanle izanik aipatutako datan.**
- **Jakinarazi erabaki hau Estatuko Estatistika Institutora 2018ko uztailaren 20ko ebazpena udal erroldaren urteko berriskupenaren inguruko jarraibideen arabera.**

4.- Taxi baimenaren titularitate aldaketa eskaera.

Alkateak azaltzen du taxi baimenaren titularra 2018ko urriaren 12an hil ondoren, orain baimen horren titularitatea bere gurasoengan dagokiela justifikatzen dituzten eskriturak aurkeztu direla eta hauek bere ilobari ematen diotela ondoren baimenaren titularitatea. Taxiaren 2005/9 foru legearen arabera taxi lizentzia dituztenek ondoko baldintzak bete behar dituzte:

- a) Pertsona fisikoa izatea.
- b) Espainiako nazionalitatea izatea, edo Europako Batasuneko herrialde batekoa, edo Espainiak sinaturiko nazioarteko akordio, itun eta hitzarmenen ondorioz halako baldintzarik eskatu behar ez zaion atzerriko beste herrialde batekoa; edo bestela, norberaren kontura garraioan aritzeko lan baimen egokia izatea, Espainian dauden atzerritarren eskubide eta askatasunei buruzko legeetan xedatutakoaren arabera.
- c) Ibilgailuaren erabiltzeko modua frogatzea (jabetza, errentamendua edo ordenamendu juridikoan onartutako beste edozein titulu).
- d) Indarra duen araudian ezarritako zerga betebeharrak, lan arlokoak eta gizarte arlokoak betetzea.
- e) Zerbitzuan eragin daitezkeen kalteengatiko erantzukizun zibila estalita izatea, indarra duen araudian eta zerbitzua arautzen duten ordenantzetan ezarritako moduan.
- f) Taxi gidari profesionalaren baimena edukitzea, udalak edo baterako zerbitzurako eremuko toki entitate eskudunak ordenantzetan hala eskatzen badu.”

2005/9 foru legearen 12. Artikuluan zehazten dira baimenen eskualdatze prozedura, honako pausoak jarritu beharko dituelarik:

Taxi lizentziak eskualdatu ahal izateko, udalaren edo baterako zerbitzurako eremuko toki entitate eskudunaren baimena beharko da aldez aurretik. Ez da lizentzia eskualdatzeko baimenik emanen eskuratzailleak ez baditu betetzen foru lege honen 6. artikuluan lizentzia emateko ezarritako baldintza guztiak.

Halaber ez da taxi lizentzia eskualdatzeko baimenik emanen eskualdatzailea lizentziaren titular egin zenetik 5 urte baino gehiago iragan ez badira.

Azken baldintza hori ez da aplikatuko titularrak erretiroa hartzen badu, hiltzen bada edo taxilari lanetan aritzeko ezintasun iraunkorra duela deklaritzen bada.

Lizentzia eskualdatzeko eskaerari baiezkoa eman zaiola ulertuko da baldin eta bi hilabeteko epean udalak edo baterako zerbitzurako eremuko toki entitate eskudunak

ez badu berariazko ebazpenik ematen eta jakinarazten, salbu eta foru lege honetan xedatutakoa urratzen denean.

Taxi lizentziak eskualdatzeko baimena eman dadin ezinbesteko baldintza izanen da eskualdatzailea egunean egotea toki entitateak eska ditzakeen eta taxien zerbitzuaren jarduerarekin loturik dauden tributuen ordainketan, bai eta foru lege honetan adierazitako isunak ordainduak izatea, administrazio bideari amaiera eman dion ebazpen baten bidez ezarriak badira.

Hau guztia ikusita eta baimena izan behar duen Ander Oyaregui Munarrizek betetzen dituen 2005/9 foru legearen 5 artikulua zehazten duena, bildutakoak aho batez ondoren zehazten den akordio onartzen dute:

- **Basaburuko udalak duen taxi baimenaren titularitatea Jose M^a Munarriz Larrionen izenetik, Pedro Munarriz eta Martina Larrionen izenera pasatzea 2005/9 foru legearen 12. Artikuluaren arabera.**
- **Basaburuko udalak duen taxi baimenaren titularitatea Pedro Munarriz eta Martina Larrionen izenetik Ander Oyaregui Munarrizen izenera pasatzea 2005/9 foru legearen 12. Artikuluaren arabera eta aipatutako legearen 5 artikulua arabera taxi lizentzia izateko baldintzak betetzen dituelako.**
- **Jakinarazi akordio hau Ander Oyaregui Munarrizi.**

Gai zerrendatik kanpo badago beste gai bat presazko azterketa eskatzen duena eta bildutakoek gai zerrendan sartzea onartzen dute aho batez.

Berueteko 12. Poligonoko 548. Lursailean kanpamentu turistikoa jartzeko plan berezia. Hasierako onespina.

Alkateak adierazten du kanpamentu turistikoa jartzeko lehenik legeak parte hartze plana onartzea eta burutzea eskatzen duela eta parte hartze prozesuaren ondorioak plan berezian sartu. Hau egindakoan plan bereziaren hasierako onespina eman ahal zaio, 2017/1 foru legearen 73. Artikuluaren arabera. Horretarako udal arkitektoak plan bereziaren dokumentazioa aztertu du eta 19/195. baieztatu txostena egin, beti ere sustatzaileak behin behineko onespenerako kontutan hartu behar duela, trafiko eta mugikortasun azterketa aurkeztu behar duela eta aurreikusitako aparkatzeko plazen justifikazioa.

Bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Hasiera batez onartzea Berueteko 12. Poligonoko 548. Lursailean kanpamentu turistikoa jartzeko plan berezia eta 2017/1 foru legearen 77.2 artikulua arabera Ingurugiro Departamentura- Lurralde Antolamendu zerbitzura helarazi dagozkion txostenak eskatuz eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin akordio hau agindu jende aurreko epean hilabetez egon dadin.**
- **Jakinarazi erabaki hau sustatzaileari adieraziz 19/195. Udal arkitektoaren txostenaren arabera aurkeztu beharko duela eskatutako dokumentazioa.**

Xabier Azpiroz bertaratzen da bilerara.

5.-Mozioak.

Alkateak azaltzen du martxoaren 24rako deitua zegoen manifestaldirako atxikipena emateko adierazpen instituzionala bidali zutela eta batzarra ondoren zenez, martxoaren 21eko 2019/33. alkate ebazpen bidez onartu zen eta orain batzarrera berresteko proposamena egiten du. Hau adierazten duena

“Bi urte baina gehiago pasa dira 2016ko urriaren 15ean Altsasuko ferietan izandako gertakari deitoragarrietatik.

Gertakari hauei dagokien epaian bi eta hamahiru urte bitarteko neurrigabeko zigorrak ezarri zituzten.

Epai hau Fiskaltzak errekurritu zuen. Behin fiskaltzaren eta defentsaren helegiteak errebisatu ondoren, Auzitegiak gertaera hauek ezin direla “terrorismozat” hartu ebatzi du, baina hamahiru urte bitarteko zigorrak berretsi ditu.

Egoera honen aurrean Basaburuko Udalak honako adierazpena egiten du:

1.- Basaburuko Udalak Entzutegi Nazionaleko Apelazio Gelak ebatzitako epaiaren aurrean erabateko desadostasuna adierazten du.

2.- Basaburuko Udalak *Altsasu Gurasoak* eta *Altsasukoak aske* plataformek “Hau ez da justizia. Altsasukoak Aske” lelopean datorren martxoaren 24erako deitu duten manifestazioari atxikimendua adierazten dio eta herritarrak bertan parte hartzeko deialdia luzatzen du.”

3.- Basaburuko Udalak, Komunikabideei eta gure udalerriko herritarrei jakinaraziko die onartutako adierazpena. “

Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako adierazpena.

Ondoren alkateak Larraungo Udaletik jasotako haur ostuen inguruko adierazpena dagoela adierazten du onartzeko eskatuz. Ondoren zehazten den adierazpena irakurtzen du alkateak:

“ Lapurtutako umeen gaiaren inguruan, azken aldi honetan, komunikabideetan argitaratutako informazio ikusita, eta herri honetan eta inguruko herrietan umeen lapurketa jasan zuten familiek informazio horiek guztiak baieztatu dituztela aintzat hartuta, Larraungo Udalak laguntza era erabateko babesa eskaini nahi die famili horiei.

Jakinarazpen honen bidez, honako hau eskatu nahi die agintari hauei guztiei, epaileei, eliztarrei eta gobernukoei: egiaztatutako gertakari ikaragarri hauek ahalik eta azkarren argitu daitezzen neurriak har ditzaten, GIZATERIAREN AURKAKO KRIMEN gisa zehaztu diren horiei zor zaien amaiera emateko.

Udalak uste du administrazioek, familia horien guztien sufrimendua amaitzeko laguntza eskaini dezaketela, dituzten baliabideak eskainita.

Arazo larri hau ez da gure eskualdean soilik gertu. Horrelako kasuak Estatu guztian izan direnez, gura eskaerarekin bat egin dezazuen gonbitea luzatzen dizuegu. Ea guztion artean lortzen dugun familia horiek haien seme-alabak non dauden jakitea eta hainbeste urtetan galdutako pakea berriz eskuratzea.

Basaburuko udalak idatzi hau ondoko hauei bidaltzeko konpromisoa hartzen du:

- **Nafarroako Udalak eta bestelako entitateak. Umeen lapurketa kasuak komunitate osoan gauzatu zirenez, eskaera honekin bat egin dezaten eta beharrezkoak diren instituzioetara igor dezaten.**

Bildutakoak aho batez irakurritako adierazpena onartzen dute.

6.- Batzordeen informazioa.

-Kirol Batzordea. Bakartxo Ripaldak ematen du informazioa.

Raketisten erakuskea Apeztegi berriko ganbaran egonen da apirilaren 7a arte.

Oihanzabal eskolarako, umeek erabiltzeko 8 pilota erosi dira.

Martxoaren 19an mendi irteera egin zen eta maiatzaren 1ean beste bat antolatzen ari da batzordea Igoa- Arrarats eta Beruete artean.

Apirilaren 20an Duatlhon proba egingen da Gartzaronen eta maiatzaren 4an sega erakustaldia Udabe Beramendin.

7.- Informazio orokorra.

- PDR-ko dirulaguntzaren onespina. Onartu da jada dirulaguntza, aurkeztutako 72.872,25 euroko gastuaren arabera 50.000 euroko dirulaguntza jasoko du udalak, Proiektu honetan Udabe-Beramendi, Igoa eta Orokieta Erbitin fibraren azpiegitura buruko da.

- Korrika Kultura. Udalak erositako kilometroa 1031. kilometroa da eta Jaunsaratsko mediku kontultegiaren parean dago. Apirilaren 8an 21: 17ak aldera pasako da Korrika kilometro horretatik. Informazio hau web orrian jarriko da berriak atalean.

8.-Errege-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 18:00ak direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.